



AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN AZAROAREN 26KO 389/2024 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUAREN IZAPIDETZARI HASIERA EMATEN DIONA.

XII. Legealdira arte Euskalterm terminologia banku publikoaren kudeaketa eta euskarazko terminologiaren inguruko egitekoak dituzten erakundeekiko lankidetzaren sustatzearen eskumenak Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak zituen esleituak.

Euskarazko adimen artifizialen inguruko lanketa eta horietan oinarritutako itzultzaile neuronalen garapena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzatik kudeatzen denez, aurreikusten diren balizko sinergiak direla eta, egokia ikusi da banku terminologikoen sustapena eta kudeaketa ere HPSko Sustapen Zuzendaritzako zerbitzu beretik kudeatzea, berriz ere.

Hori dela eta, eskumen berreskurapena egiteko *Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatu egin behar da.

Dekretu-proiektu berria egiteko eta izapidetzeko prozedurak arau hauetan jasotako aginduak bete beharko ditu:

- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.
- Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakia, araugintza-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen (132/2017 Ebazpena, abenduaren 12koa, abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).
- Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 11ko Erabakiaren bidez onartuak (78/2023 Ebazpena, uztailaren 28koa, abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduan jaso beharreko edukia zehazten duen *Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 13.1* artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- *Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatzeko dekretu proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea onartzea, agindu honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua egiteko eta asmatuko dugula eta legezkoa izango dela bermatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko(a)ren ...a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,

IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

ERANSKINA

Arauren xedea eta helburua.

Dekretu-proiektuaren xedea eta helburua da *Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatzea, XII. legealdira arte terminologia alorrean Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak esleituak zituen eskumenak berreskuratu eta berriz berari esleitzeko.

Proposamenaren egokitasuna, arautzeko aukerak eta arau berriaren beharren justifikazioa.

Euskarazko adimen artifizialen inguruko lanketa eta horietan oinarritutako itzultzaile neuronalen garapena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzatik kudeatzen denez, aurreikusten diren balizko sinergiak direla eta, egokia ikusi da banku terminologikoen sustapena eta kudeaketa ere HPSko Sustapen Zuzendaritzako zerbitzu beretik kudeatzea, berriz ere.

Horretarako ez dago beste erregulazio-alternatibarik dekretu berri baten bitartez *Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatzea baino.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 389/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio *Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen* 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak baliatzea, bai eta *Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren 18/2024 Dekretuaren* arabera sailari dagozkion egitekoen eta jardun-arloen esparruan indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere.

Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, sailburuei dagokie beren sailari dagozkion gaietan guztizko arduralaritze-aginduak ematea. Era berean, *7/1981 Legearen* 61. artikuluan arabera, Sailek, Sailburuek izenpetutako aginduz egiteratuko dute araugintza-ahalmena.

Halaber, *Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen* 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren eskumena dela.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

*Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.2 artikulua*ren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio hizkuntza normalizazioaren eskumena.

Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 26. artikulua dioenez sailburuei dagokie beren Sailari dagozkion gaiei buruzko arau proposamenak egitea, Jaurlaritzak onartu ditzan.

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren 18/2024 Dekretuaren 6. artikulua*ren arabera, hizkuntza-politikaren eskumena Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio.

Ordenamendu juridikoan edukiko dituen ondorioak.

Dekretu berriarekin *Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 389/2024 Dekretua* aldatuko da; halaber, eskumen eskualdaketa gauzatzeko, *Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen 133/2021 Dekretua* ere aldatu egin beharko da; horretaz gain, ez du aldaketarik eragingo gainerako xedapenetan eta ez da xedapenik indargabetuko.

Indarrean dauden aipatutako egitura dekretu biak aldatu artean eskumen lekualdaketa ez da burutuko; dekretu-proiektuan horretarako xedapen iragankorra eman beharko da.

Genero-ikuspegitik arauak izan dezakeen garrantzia.

Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak onartzen ditu.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikulua ezartzen duenez, generoaren arabera eraginaren aurretiazko azterketak kontuan hartuko dira, eta proiektatutako arauak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen balioespen arrazoitu bat egingo da.

Ildo beretik *doa 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena*, 19. eta 20. artikuluetan, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriei dagokienez.

Ez da aurreikusten arauan proiektatutako eskumen lekualdaketak ondorio positiborik ez kontrakorik izan ditzakeenik emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Aurrekontuetan izango duen eragina.

Eskumen lekualdaketak berarekin ekarriko du eskumen hauei loturik dauden lanpostu-dotazioak eta aurrekontu zuzkidurak ere lekualdatzea Administrazio Publikoaren Euskal Institututik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzara.

Esleipen lekualdaketa horretatik haratago, dekretu-proiektuak ez du eragin ekonomiko berririk sortuko eremu publikoan ez pribatuan.

Onurak eta administrazio-kargak.

Arau berriak ez die herritarrei administrazio-kargarik sortuko.

Eragina enpresa txiki eta ertainetan.

Araua, Administrazio Orokorraren esparruan eskumen esleipen lekualdaketa egitera mugatuko da; beraz, proiektatutako arauaren xedeak ez du inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan, eta, horregatik, ez da beharrezkotzat jotzen *Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legearen* 6. artikuluan aurreikusitako enpresa-inpaktuari buruzko txostena egitea.

Xedapenak uki ditzakeen subjektuak eta antolakunderik adierazgarrienak.

Ez da beharrezkoa izango Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena egitea, arau-xedapen orokorra egiteko proiektuak ez baitie udalerrien eskumen propioei eragiten, *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen* 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Testu artikulatuaren itzulpenarako edo idazketa elebidunerako teknika.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 4.j), 5., eta 14. artikuluetan ezartzen den bezala, hizkuntzen berdintasuna araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa modu egokian betetzeko, izapidetze organoak xedapen proiektuaren idazketa elebiduna egingo du prozedura osoan zehar, bere bitarteko propioekin, itzulpenetara jo gabe.

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, arau-proiektua bi hizkuntzetan idatziko da publizitate ofizialaren ondorioetarako.

Helburu horrekin, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik, 6/2022 Legearen 27.3 artikulua dioenari jarraiki, euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

Entzunaldia eta jendaurreko informazioa, negoziazio kolektiboa eta beste administrazio batzuei kontsulta egitea.

Ez da beharrezkoa ikusten 6/2022 Legearen 17. artikulua aurreikusten duen entzunaldi eta jendaurreko informazioa egitea; izan ere, dekretu-proiektuak ez die zuzenean eragiten herritarren eskubide eta interes legitimoiei.

Ekimena salbuetsita dago entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapideetatik, negoziazio kolektibotik eta autonomia-erkidegoko beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapideetatik; izan ere, antolamendu-izapide hutsa da, eta ez die eragiten beste administrazio batzuei, 6/2022 Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera.

Bidezkoztat jotako izapideak eta txostenak

Prozeduraren izapideak eta txostenak jarraian zehazten dira, eta izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2012ko azaroaren 27ko Erabakiarekin bat etorriz.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, lehenik eta behin, eta xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, hasteko agindu hau ezagutza partekatuko "Legesarea" lankidetzaren gunean argitaratuko da.

Era berean, 6/2022 Legearen 13.2 artikulua arabera, hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratuko da, eta argitalpen hori sail guztiei automatikoki jakinaraztearen parekoa izango da, hala badagokio, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Ondoren, arau-xedapena idatziko da, kontuan hartuta hasteko agindu honen edukia eta aurreikusitako araudiaren zehaztasuna eta legezketasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitza. Proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak onartu beharko du alde aurretik, 6/2022 Legearen 15. artikulua aurreikusten duen bezala. Xedapen horrek ezartzen du xedapen orokorren proiektuek prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde aurreko onarpena izan beharko dutela, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Aldez aurretik onartzeko agindua eta arau-proiektua ezagutza partekatuko "Legesarea" lankidetzagunean argitaratuko dira, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiari jarraikiz.

Gainera, honako izapide eta txosten hauek erantsiko zaizkio espedienteari:

- a) Proposatutako arauketak eragin diezaiekeen sailei kontsulta egitea.
- b) Enplegu Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 317/2024 Dekretuaren 17.1) artikulua araberak.
- c) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, *Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan* eta, 6/2022 Legearen eraginez aldatutako, *Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 oinarritzko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa* betetzeko.
- d) Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egin ondoren, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuari* eta 6/2022 Legearen 4.h) eta 14.4 artikuluei jarraikiz, eta kontuan hartuta *Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakia*, zeinaren bidez onartzen baitira genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak, Emakunderi bidaliko zaio.
- e) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren txostena.
- f) Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, 317/2024 Dekretuak, *Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura*

organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 21.1.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera.

- g) Legezketasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak emana, 6/2022 Legearen 22. artikulua arabera.
- h) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, honako hauek ezarritakoaren arabera: (i) *Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. Artikulua*, (ii) *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 464/1995 Dekretua*, (iii) 6/2022 Legearen 23. artikulua; eta (iv) *Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.*

Xedapen-egitasmoak ez du berekin Europar Batasunaren aurrean burutu beharreko inolako izapiderik.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez zaio arau-proiektu honi buruzko kontsultarik egingo, ez baitago *Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 9/2004 Legearen 3. artikuluan* araututako eskumenen artean.

Beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak egindako legezketasunari buruzko txostena, 6/2022 Legearen 22. artikulua arabera.

Dekretu-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, bere onarpenerako Gobernu Kontseilura igorri aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, aurrekariak eta egindako izapideak aipatuz.

Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila izendatzen da prozedura izapidetzeko organoa izateko.

Urteko araugintza-plana

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 389/2024 Dekretuaren aldaketa Eusko Jaurlaritzak 2025 urterako onartutako Urteko Araugintza Planean ez dago sartuta, eta, beraz, justifikatu egin behar da, inolako baliogabetze-ondoriorik eragin gabe.

Eusko Jaurlaritzak 2025 urterako onartutako Urteko Araugintza Planean sartuta ez badago ere, eskumen lekualdaketa gauzatu ahal izateko oso premiazkoa da izapidetze hau ahalik eta lasterren abiatu eta burutzea.

Argitalpena

Xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2010eko abenduaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz, hasteko agindu hau Legesarea lankidetzagunean argitaratuko da.

Halaber, aldez aurretik onartzeko agindua Legesarea ezagutza partekatuko gune partekatuan ere argitaratuko da.

Era berean, *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean* aurreikusitakoaren arabera, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko, proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da.

Azkenik, *Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen* 64. artikulua arabera, arau-proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.